

# LAGUNTZA TEKNIKOAK

## **Kontzeptua:**

Programa honen bidez lortu nahi da adinekoa edo desgaitasuna duen pertsona ohiko ingurunean gelditzea erraztu eta sustatzea, autonomia pertsonala hobetuz eta zaintzailearen lana arinduz. Helburu horrekin, mailegu edo diru-laguntza sistema antolatu da familiari behar dituzten laguntza teknikoak erostea ahalbidetzeko, edota etxebizitza adinekoak edo ahalmen urrituak dituen beharretara egokitzeko. Ondorengo laguntza motak ematen dira: bainuontziak kendu eta dutxa geriatrikoak jarri, barrak bainuontzi, komun eta pasilloetan, eta abar, ohe artikulatuak, komunerako eserlekuak.

## **Lan Eremua:**

Gipuzkoa.

## **Hartzaileak:**

Laguntza beharreko 60 urtetik gorako pertsonak edo %33ko edo goragoko ahalmen urritasun maila duten pertsonak.

## **Baldintzak:**

Indarrean dagoen araudiak ezarritakoak

## **Sarbidea:**

Hitz -ordua eskatu Udal Gizarte Zerbitzuetan 943 65 12 00 telefonoan.

## **Ekarpen Ekonomikoa:**

Kopurua aldatu egiten da eskatzailearen eta bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren arabera.